

ANTONIO TRUEBA-RI

bete eriyotzako 25^{-garren} urtian.

MONTELLANO-ko baserri koškor batian jayo zan 1821^{-ko} Abendua-
ren 21^{-an}. Gazte gaztetandikan bere biyotz maitatiya asaltzen
zan españetara itz legun ta atsegiñakiñ. Amabost urte zitubenia
Madrid-a juañ biarra izan zuben, ta orduban asaldu zan biursari bikañe-
netakua bezela ta idazlari azkar eta egokiya.

Makiñachobat liburu argitaratu zituben, ta danetan asaltzen zan gar-
bi ta sendo bere biyotz legun, kupitsuba. Bene benetako biursari-tzat
denak esagutzen zuten.

Bañan zegoñ tokiyan zegola, gora edo bera jarraitzen ziyon bide
zuzenian, beñere astutzen etzizayon bere lur maite atsegiña; Euskal-
erria-ren ganako zaletasuna etzizayon beñere agortzen, geruago ta gogo
biziya gaa zeukan mendi tarte zoragarri abenzat.

Ala Bizkai-ko batzar burubak eskeñi ziyonian Bizkai-ko eragoari
izatia, zegona zegoñ lekuan utzi ta laster baño aguruago etorri zan bere
sorterri maitera, bere almen guziakin alzuben guzia Euskal-erria-ren
alde lan egiteko.

Beti betikua izan zan Trueba-ren biyotzian sorterria-ren alderako
zaletasun biziya, baserri atsegiñaren ganako gogo bizi ta šamurra, au-
rrentzat naitasun kaburik gabia; ta ala asaltzen zituben bere idazti ber-
din gabietan, bere gain gañeko egipen zoragarrietan.

Orra zergatik bere izena maitatu dan Euskal-erria-n sasoi guzietan:
orra zergatik bere eriyotzaren 25^{-garren} urtian baztar guzietatik entzuten
diran oju alayak, deadar indartzuak, irrintzi, santzo neurrigabekuak.

Guk ere nai diogu eskeñi gure maitasunezko oroipen chikiya, goi-
tuaz bere izen ospetsua, gizaldi guzietan jakin dedin zenbateraño-ko az-
kar, yayo, trebe, artakua zan Trueba, zeñen maitagarria bizi zan bitar-
tian, ta maita biarragaa dala oraindik euskaldun egiazkuen gandik.